

Memoria berreskuratu



Victor Masferrerren "Ramlah" lana abiapuntu hartuta, berrinterpretazio-prozesu sortzaile bati ekiteko gertaera bat ikertuko dugu.

Helburuak

- Victor Masferrerren obrara hurbiltzea.
- Sormena garatzea argazki, bideo eta dokumentazio historikoaren bidez.
- Denbora modu poetiko, sinboliko eta estetikoan nola islatzen duen esperimintatzea.
- Experimentar con la performance y el vídeo.

Aipamenak

Ramlah <https://victormasferrer.net/ramlah>

Victor Masferrer eta Eva Cauri elkarrizketa "Rámlah" obraren inguruan <https://vimeo.com/23916066>

Obraren bideo-lana <https://vimeo.com/24309204>

Ramlah <https://victormasferrer.net/ramlah>

"Oroitarría" (78ko Sanferminei buruzko dokumentala)

<http://sanfermines78gogoan.org/?p=110>

Historiako pintura

http://www.cossio.net/actividades/pinacoteca/p_04_05/pintura_de_la_historia.htm

Persépolis (komikia eta filma)

<https://www.traficantes.net/libros/pers%C3%A9polis>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Victor Masferrerren "Ramlah" lana ikusten dugu.

<https://victormasferrer.wordpress.com/projectesinstal%C2%B7lacions/>

<https://victormasferrer.net/ramlah>

2. Guztion artean, ikertu nahi dugun gertaera zehatz bat definitzen dugu.

Dokumentazio-lana egiteko taldeak sortzen ditugu: gertaera kontatzeko testuak, irudiak eta artikuluak bilatzen ditugu artxiboan, gertaera bizi izan zuten pertsonekin hitz egiten dugu...

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Egun batzuetako ikerketa-lanaren ondoren, bildutako informazio guztia bateratzen dugu. Bildutako testigantza, artikulu, argazki edo bideoetatik abiatuta, sorkuntza-prozesuari ekingo diogu.

2. Talde ezberdinak sortzen ditugu. Talde bakoitzak argazki, testu edo artikulu bat aukeratzen du hortik abiatuta lanean hasteko.

Nahiz eta garai historiko jakin bati dagokion, helburua ez da iraganeko gertaera bat irudikatzea, haratago joan nahi dugu, lekukotza hutsa kontakizun poetiko, sinboliko bihurtuz.

Idea-jasa egingo dugu zer material edo teknika landu nahi ditugun zehazteko. Irudi berriak, bideoak, soinua grabatu, testuak txertatu... sor ditzakegu.

3. Lanak banatu eta ikertutako jazoera/gertaera berriro interpretatzen dugu...

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Amaitzeko, lan guztiak batera azalduko ditugu. Denon artean zehazten dugu non jartzen diren obra osatzen duten piezak eta zer ibilbide egitea nahi dugun bisitariek; hau da, ikusleak obra nola hauteman nahi dugun pentsatzen dugu.

2. Muntatutakoan, erakusketaz gozatzera gonbidatzen ditugu ikerketa-prozesuan parte hartu duten pertsona guztiak. Mahai-ingurua egingo dugu, esperientzia nolakoa izan den, zer eragin izan dien gehien ikasleei, ikusleei zer iruditu zaien inguruan eztabaidatuz.

3. Sorkuntza-prozesu hori esparru pertsonalagora eramaten dugu, gai nagusizat "familia" edo harreman pertsonalak hartuz edo norbera protagonista gisa jarriz.